

Agirre, Colina, Egaña, Elortza, Iturriaga eta Lujanbio Zeanurin 21ean

12. orrialdea

Gorbeia Suzien ez da egingo aurten

Suzien Mendi Klubak ointxe arteko balantze ona egiten dauan arren, 2018an ez daukala Gorbeia Suzien mendi lasterketa antolatuko azaldu dau. "Hainbat arrazoiengaitik, lasterketarik ez antolatzea ebatzi dogu" adierazo dabe antolatzaileak euren webgunean eta sare sozialetan plazaratutako oharrean. **10. orrialdea**



Kaotiko taldeak kontzertua emongo dau Kiñu Gaztetxean urtailaren 27an

13. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

288

2018ko urtailaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org



Kataluniako auzia berbagai

Angel Larrea Beobide irakasleak momentu honetan pil-pilean dagoan gai hau hobeto aituteko gako batzuk emongo ditu. Horretarako, mende batzuk atzera egingo dau, ibilbide historikoa zein izan dan ezetuteko.

Erregimen Zaharretik gaur arteko gertakizun inportanteenak zeintzuk izan diran kontetan ditu. Holan, "Procés" deitutako mobimentu sozio-politiko soberanista eta independentistean jatorria eta zergaitia jakiteko aukerea emoten dau. **8. eta 9. orrialdeak**

Goi tensinoko linea elektrikoaren proiektua aurrera doa



Goi tensinoko lineak Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik pasetako asmoa dauka. Udal honeek proiektu honen aurrean alegazioak bidaldu deutsee Espainako Energia, Turismo eta Agenda Digital ministerioari.

Halanda be, Red Electrica de España konpainiak, proiektuaren bultzatzaileak, baimen administratiboa lortu badau be, beste informe bi eskuratu behar ditu proiektua hasi ahal izateko. **7. orrialdea**

LEMOA

Alex Txikon bigarren kanpalekuan



Alex Txikon Everesteko bigarren kanpalekuan dago daborduko. Lemoakoak igazko neguan lortu ez eban erronka lortzea dauka helburu. Urtilaren 20an oster, Igorreko Lasarte Aretoan Everest filma ikusgai egongo da. Everest mendia (8.848 metro) neguan eta oxigeno artifizial barik igoten saiatzeko Txikon egindako aurreko espedizioa kontetan da bertan. **11. orrialdea**

IGORRE

Lehendakari Agirre kalearen eskumena Udalarena da

Igorreko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz hainbat batzar egin eta gero, Lehendakari Agirre kalearen jaubetza eskuz aldatutea lortu dau. Jaubetza izanda, Igorreko Udalak proiektu bi aurkeztu ditu. Lehenengoan, eleiza ondotik Renault ingurura espaloia egingo dau, zebra-bide eta zugatzakaz. Bigarrenean, Garbe eta Arantzazu arteko tartea oinez egiten daben personeren segurtasuna bermatu gura dau. **6. orrialdea**

M. Jose zure arropa

Beherapenak

GALANTA

Agirre Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
94 631 90 08

Bularretakoak 14 eurotik aurrera
Konjuntoak 14,95 eurotik aurrera

ARANTZAZU/IGORRE

Orobitik Arantzazu eta Igorre lotuko dituan oinezbidea

Oinezkoek gero eta gehiago erabilten dabe Orobiko errepide zaharra, eta honek egoera arriskutsuak sortu ditu autoen abiadura eta erabilzaileen artean. Horregaitik, Arantzazuko eta Igorreko Udalek norabide bakarrek bihurtzea ebatzi dabe. Oinezkoentzat eta bizikletaz ibiltzen diranentzat oinezbidea egingo dabe, errepideko erreia bat gordez. Abenduan lan batzuk egiten hasi baziran be, proiektua hilabete batzuk luzatuko da. **7. orrialdea**



ARRATIA KOLOREETAN

AREATZAKO KULTUR ETA KIROL BATZORDEA

2018. urtean 6 urte beteko dira, Areatzan kultur eta kirol ekintzak bultzatzeko ahaleginetan, herriko taberna baten kolektibo eta sensibildade desbardinatetik gentozan talde bat lehenengoz batu ginanetik. Tabernako lehen batzar horretan esandakoak ardatz modura hartuz, 2012an AKKB sortu zan, gaur egun 289 bazkide, 76 federatu eta 32 babesle daukazan Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea. Alkarteak, buru bakarra, baina arlo desbardin bi daukaz: alde batetik, Lamino Kirol Kluba, kirol ekintzat arduratzen dana eta bestetik, Aita Añibarro Kultur Elkartea, kultur arloko ekintzak antolatzear arduratzen dana.

Bere sorreratik AKKBk argi daukaz zeintzuk diran bere hel-

buru nagusiak:

- Era guztietako kirol eta kultur ekintzen antolaketa bidez, herriko kultur eta kirol eragile desbardinaren arteko hartu-emonen sendotu, herri parte hartzea handituz eta honegaz batera herri sentipena errotu.

- Areatzan kultur eta kirol aukera zabal eta interesgarria sustatu.

- Gure herriko eta inguruko historia eta ondarea ezetu.

- Hilerio antolatzen diran mendi urtekeren bidez, gure inguruko mendi gailurrak, bidezidorrak, ondare naturala... ezetu eta baloratu.

Gure ibilbide labur honetan, autofinantzaketa izan dogu helburu. Holan, 11.130 eurotako aurrekontua izan dogun 2017. urtean, laguntza publikoa %16koa izan

da, falta dan beste %84a bazkide, babesle pribaduen edo autofinantzaketa bidez lortu da.

AKKBk 6 urte honeetan, zineari, literatureari, zientziari, antzerkiari, xakeari, musikeari, argazkigintzeari, pinturareari, historiari, ondareari, natureari, mendiarri, patinajeari, esku peloteari, frontenisari, herri kirolari, orientazioari... lotutako ekintzak, tailerrak eta jardunaldiak antolatu dauz. Eta guzti hau Areatzako Guraso Elkarte, Arratia Raid, Areatzako esku pelota taldea, Areatzako batukada taldea, Areatzako Peña Athletic Gorbeako Gurutzea, Areatzako Parketxea, Frakazuri Gazte Asanbladea, Areatzako Jai Batzordea eta Areatzako Udalgaz alkarlanean.

Hemendik aurrera bide bardinetik jarraitzea espero dogu eta hori dala eta, 2018rako ekintza ugari prest daukaguz: zezeiletik hasita umorezko antzerki zikloa (hilean baten), III. musika bakarreen ziklo barruan piano kontzertuak, VI. erdu eta musikatu, mendi urtekerak (Aizkorrigain, Bikotzane,



Arakaldo trabesia, Pirineo eta Picoaseko asteburuko urtekerak...), Frontenis Txapelketea, Euskalduna Jauregi urtekerak, babajana...

Amaitzeko, ortu baten lez, AKKBkook atzen urteetako bi-je honetan, kultura eta kiroleko haziak erein, ureztatu, zaindu eta landu doguz. Lan horren ondorioz, Areatzan datozen urteetan kultur eta kirol egitarau zabalaz gozatzeko oinarri sendoak ezarri dira, gure ustetan, erein eta landu bako bideak ez dau-eta inoz frutu indartsurik emongo. Baina AKKBn

lan egiten dogunontzat programazioaren antolaketa baino garrantzitsuagoa, ibilbide honetan lortutako eta sendotutako giza hartu-emonak dira. Honegaitik mila esker eta besarkada bana, gaur egunerarte bi-je lagun izan diran bazkide, alkarre, babesle eta laguntzaile bakoitxari. Gu, hemendik aurrera, gaur arte moduan, lana ahalik eta txukunen egiten saiatuko gara.

Erdi eta gozatu AKKB!!

Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtilaren 15etik 21era
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Urtilaren 22tik 28ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Urtilaren 29tik zezeilaren 4ra
Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarría 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 38 50 14
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51

Gorbeialde Irratia
94 631 52 90

Euskotren 902 543 210
Areatzako Notarioritza
94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan:
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
* Basauriraino (Ariz) heldu da.
Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.
Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.
* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.
Basauritik (Ariz): 12:45.
* Igorreko Instituturaino heldu da.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.

ZERTU kultur elkartea

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzio burua: Ane Rilo Gonzalez. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzio taldea: Illart Gumuzio, Angel Larrea Beobide, Alvaro Rabelli eta Irati Urien.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

"Berak ez ninduan sekula jo"

Ondo emon euskun Irantzu Varelak andren kontrako biolentzia psikologikoa barri Areatzan, goiko izenburu hori daukan dokumental laburraren bidez.

Dokumentala ikusi eta bera entzunda atera nebazan bi ondorio garrantzitsuenak aitatu gura nekez hemen:

1- Biolentzia psikologikoa agerian ipintzearen beharra. Dokumentalean agertzen ziran andrak maila intelektual handikoak eta ekonomikoki erdi mailakoak ziran; izan be, pentsetan danaren kontra biolentzia psikologikoa edozein mailatako andrak sufriduten dabe eta batzuetan fisikoak baino ondorio latzagoak ixten dauz. Beharrezkotzat jotzen dot holango errelatoak entzutea androk identifiketan ikasi daigun hain normalizauta daukagun biolentzia psikologikoa eta baita be berbak izan daiguzan gertatuten jakuna kontatu ahal izateko. Biolentzia horren menpe dagoanak hainbat lehenen urten dagian egoera horretatik, jakinda Irantzu Varelak esan eban moduan

"bikote harremanak ongizatea ekarri behar deuskula eta hori ondo egotea dala" beste barik. Ez daigun barriro entzun: "inork ez eustan esan ni neuri horrelakorik gertatu ahal jatanik".

2- Andrai sinistutea. Biolentzia psikologikoa gatxagoa da detektetan fisikoak baino; askotan emoten da gainera bikoteagaz biolentzia dan gizona sozialki adaptatua eta onartua izatea, abilitate sozial handiak be euki leikez; horregaitik andrea bere errelatoa sinestuko ez ete deuseenaren bildur izaten da eta gertatu be gertatuten jako kontau eta lagunak be esatea sinesgaitza egiten jakiela bere kontaketea. Onartu daigun biolentzia mota hau sano hedatuta dagoala gure artean, dokumentalean moduan inork ez dagian barriro esan: "Askotan pentsau izan dot gurago izango nebala jo banindu".

Horreek izan ziran ikasi nebazan konturik oinarrikoenak baina uste dot asko daukodala ikasteko gai honen inguruan eta eskertuten dot Areatzan horretarako euki nebzan aukerea, aurrerantzean be sakonduko dogulakoan.

MAITE ARTABE URKIDI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Garbitu



Zezeri lohia kentzean deusagunean, etxeari esate baterako, garbitu berbea erabilten dogu (garbitu, agoskatuta). Hauze da bere esangura arruntena. Ostera, beste arlo honeetan be esaten da: 1- Basolanak egiten diranean: "Urte birik behin garbitu behar da basoa"; 2- Persona batek beste bat hiltzen dauanean; 3- Jatekoa osorik iruntsi egin ezkerro; eta 4- Lainoak desagertu eta zerua argituten danean.

ERETXIA

Anjelinesen guarapoa

Kubako Santiagon harrapatu euskun notiziak. WhatsApp labur bat eta kilometroek emoten daben arrotz sentsaziño hori: palmondoak, ronaren usain arina.

Casa del Son-etik ahots batek: "De Alto Cedro voy para Macané/ Luego a Cueto voy para Mayarí".

Anjelines hil dala.

Eta batzuk, amatetan diranean, emoten dabe halako argi berezi bat, jende bereziarena.

Pentsatu neban: Mario egongo jako itxaroten, tabernako barra sorkiegaz pasatu eta pasatu.

Orain biak egongo dira panoramari begira: Ibon, Iñi, Asier eta Mirentxuri. Iloba guztieri.

Bizitzak merezi dau.

Batzutan negar-antuluak urtetan jakuz eta azukre kanaberatik ataratako guarapoaren zaporea dauke. Eta Casa del Son-etik ahots batek barriro: "De Alto Cedro voy para Macané/ Luego a Cueto voy para Mayarí".

Kubako Santiagon dana da hain joria, hain da gartsua eta alaia hiria, non pentsatu gendun: igual hauxe da Anjelinesek gurako euen, Josemari Barrio eta Felisaren musikeagaz bagengoz moduan egotea goizaldera arte danok batera.

Fidel Castrok gauza asko egingo ebazan, triunfoak eukiko ebazan, baina inoiz ez eban gurutzatu Anjelinesen tabernako arku. Eskoietara lehenengo-lehenengo komuna egoan, gero Marijoserren pelukerirako eskailerak, aurrezaur sutea, ezkerretara kalerako atea, kaleko horma-kontran limoia loran, aurrerago kortak, Luis Amondarain pasean, Garairako aldatsa, eta izarrak...

Che Guevarak gauza asko egingo ebazan, zauritu asko osatuko ebazan Sierra Maestran, baina ez eban euki Anjelinesen bihotzaren moduko landa-ospitallerik.

Anjelinesen tabernako arkua-aren ostean deprimituak topetan eban konsolaziñoa, gosetiak to-



IGOR ESTANKONA

Idazlea

petan eban sobraren bat, euriak harrapatuak guardasola, desbardinak tolerantzia.

Baina Anjelineseri, gustatu, beste aldea gustetan jakon gehiago: muslarien keinuak eta futbolaren burdin-zaratea barruan, igel-tokan Gillermo meztatik urtendakoan, joko-makinan Aitor eta Jontxu eta Iker eta Borja martzianoak hiltzen. Behin Durangoko Azokatik Pako eta nik ekarri gendun EH Sukarraren lehenengo diskoa, eta Anjelinesenean entzun gendun, zerrautsaren gainean hankak laban egiten euskuen, fasil egiten da jantzen zerrautsaren gainean, "kasko gorriak, gure aurka datoz, goazen aurre egitera denok...!".

- Hartu azeituna batzuk mutilek.

Baina Anjelineseri, gustatu, goizaldea gustetan jakon eguerdiko Bitterra baino gehiago.

Gauean Itziar eta Patxo-eta sartzean baziren, Zurrumurruren diskoa ipintzen eban.

Jenteak han eukon bere babesa, zan moduko izateko.

Hori Anjelinesen legatu inportanteena da.

Arteazarrok: Anjelinesek ez euen inoiz inor epaitu.

Gure txikerrei erregalatu zien behin hartz zuri motz bat, umeak eurak baino handiagoa, korbata beilegi bategaz. "Anjelinesen hartza" da guretzat, munduko ederrena dala erizten deusagun.

Ai, Anjelines! Casa del Son-etik azkenengoz entzuten da: "De Alto Cedro voy para Macané/ Luego a Cueto voy para Mayarí". Zenbat jente esarri dan Gorbeiatik bueltan zure mahaian!

Eta euretako askori entzun deusat esaten: zelango raziñoak, Anjelinesenean!

Eta neure artean: Anjelinesen maitasun raziñoak ez dozak hik ezagutu.

LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

Olentzerogaz berbetan

Beste urte bat hasi dogu eta geure buruari bizitza barrirako proposamenak be egin deusaguz, baina ez daukat horren gainean berba egiteko asmorik; gaurkoan Olentzerogaz izandako alkarrizketaren gainean berba egiteko asmoa daukat.

Mendian etxerantza joiala topau neban eta agurtzerakoan burumakur antzeman neban. Egubariak zelan joan ziran galdetu neutsan, lan handia euki eite eban, nekatuta eite egoan, eta orduan azaldu eustan zergaitik egoan kezkatuta. Garai bateko umeek sano gauza desiratuak eskatzen ebezan, aspaldi desiratuak eta lortzeako gatzak. Eskuratu ezker, han ziran poztasuna eta emozioa! Eta lortzean ez baebezan, gurasoek lagunduta, mina arintzen ahalegintzen ziran. Gaurko umeak, oster, bildumarako falta jakien ez dakit ze tainu edo koloreko panpina edo autoa da eskatzen dabena, eta

jaso eta bost minutura ez deusie kasurik egiten, danetik daukie-eta.

Nagusien eskaerez be egin genduan berba, eta horretan be atsekabetuta egoan; izan be, andrentzako justizia persona gitxik eskatu dabe. Bere ustez, justizia soziala ez da nahikoa andrak bizirik irauteko; igaz be andrak erail ebezan, bardin da zenbat, bat bera be ez leukie erail beharko. Olentzeroren esanetan, andrakakanako indarkeria gizarteak sufritzen dauan gaixotasun sendaezin bihurtu da. Ez da nahikoa lan bardina egitegaitik soldata bardina eukitea, ez da nahikoa andrak politikan jardutea, ez da nahikoa etxeko beharrak banatzea, ez da nahikoa...

Horregaitik, prebenzinoan arreta jarrea eta tratamendua gogortzea da bere proposamena. Prebenzinoari jagokonez, umeakaz eta gazteakaz "ez" berbearen esangura eta horrek sortzean dauan frustrazioa kudeatzen irakatsi behar da; tratamenduari jagokonez, oster, andrakakanako indarkeria erabilten dabena aplikatuko zigorrak gogortu behar dira. Ez da proporzionala Altsasun eztabaida bategaitik berrogeta hamarna urteko zigorra eskatzea eta Nagore Laffage hilteagaitik, aldiz, hamabi urte; gainera, atzen kasu horretan, hiltzailea libre dago gaur egun, bederatzu urte eskas beteta.

Halanda be, agurtzerakoan itxaropentsu doala esan eustan Olentzerok, urtebete daukalako gizarteak egoera aldatzeko hainbat ahalegin egingo dauelako esperantzea berreskuratzeko.

Aurten andra bakar bat be ez eraila. Nik egin dot nire eskaerea.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Ispilua

Joxe eta andrea lurralde urrun bateko inguru menditsu eta bakarti baten bizi ziran. Lurra lantzetik bizi ziran. Baina, hain zan malkartsua ha lurra, ezen, ozta-ozta bizi eitekezan. Halanda be, goizero, sekula huts egin barik, biak ala biak olaritatean jagiten ziran lur txiro hareri etekinaren bat atarateko asmoz, agora zer eroan eukiko baebe. Ez zan erreza.

Uda aldean, uztea batzeako unea heldu zan. Larraineko lanak egin ostean, baeukiezan saltzeako prest zaku batzuk bete gari. Behin, Joxe, goizik altxau eta uztea herriko azokara saltzean joan zan. Abiatu baino lehen andreak orrazi bat ekarri behar eutsala gogorarazo eutsan. Joxek, burua mugituz, baiezko keinua egin eban. Orrazia ekarri egingo eutsan. Joxek uztea salduta dirutxu bat lortu eban, horregaz hurrengo neguari ez eutsien zertan bildurrik izan.

Baina, etxera bueltau aurretik, Joxe tabernara joan zan azoka eguna aspaldiko lagunakaz ospa-

tzen. Bertan, edan eta edan jardun eben barre eta algara artean. Joxek hainbeste edan eban, ezen ez zituan emazteak esandako berbak gogoratzen. Baekian jakin zeozero erosteko agindu eutsala, baina ez eban zehatz-mehatz zer zan gogoratzen. Erabat ahaztuta eukan. Orduan, emazteari zeozero eroan behar eutsan lez, ikusi eban emakumeentzako lehenengo dendan sartu eta han egozan milaka gauza ederren artean ispilu bat erostea otu jakon. Joxe etxera bueltau zan ispilua galtzarbean eroala, paperetan ondo batuta.

Ailegau zanean, emazteari emon egin eutsan eta segituan ortuko lanak egiten joan zan. Emazteak atara eban ispilua paper artetik, eta harrituta begitu eban. Atoan emon eutsan negar egiteari. Eta holan, negar baten, amarengana jo eban.

- Begitu zer ekarri dauan etxera nire gizonak, beste andra bat, liraina eta ederra!

Amak, orduan, ispilua hartu eta begitu egin eban. - Ez arduratu, sano zaharra da eta.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ohituta gagoz Gabon sasoiaren herrian mitikoena dan taberna barik geratzen. Baina data horreek pasauta, batzuentzat nabarmenak diranak eta beste batzuentzat (neu barne) gorrotatuak, ez gara taberna hau itxita izateari ohitzen. Izan be, Carmenek jubiletea ebatzi dau, establezimentu berezi horretan hainbat urte lanean emon ostean.

Garai batean Carmenek bere arrandegiko lana eta tabernakoa aldi berean buztartu ebazan, hari eta atzanean lehen lan hori itxi eta Azul taberna mitikoan denpora osoz jarduteko ebatzia hartu arte; duda barik, herritarren eta bisitarien poteo taberna zaharrena izan da taberna hori.

Oin gitxira arte taberna honetan, besteak beste, egundoko mustur, tripaki eta hanka lapikoak jateko aukerea euki dogu; guztiak Carmenek berak maitasun handiz prestatuak izan diranak.

Ez dira gitxi izan Areatzara Arratiatik etorritako bisitariak eta ez dabe taberna honetara joateko aukerarik galdu. Era berean, kanpotik etorritako bisitariak be asko izan dira; batzuk, gainera, herrian zehar bueltatxo bat emon ostean harri eta zur geratu izan dira; izan be, batek baino gehiagok benetako taberna bat edo etxebizitza bat dan galdetu izan dau. Eta baten batek, burlaka, honakoa erantzuten eutsien:

"Bai, guztion benetako etxea da hau..."

Zalantza barik, Carmeneri zein bere bizipenai buruzko milaka anekdota dagoz kontetako, baina horretarako astia izango dogu. Gaur gure esker ona emon gura deusagure herriko tabernari ospetsu honeri, urte honeetan guztietan guztioi, eta lerro honeek sinatzen doguzanoi bizitza osoan zehar, bere lotsabakokeria eta maitasunaz atendidu gaitualako.

Carmen Minguez Palacin Areatzako Azul tabernako tabernaria. Eskerrik asko.

Jon Ordeñana eta Azul tabernako Areatzako bezeroak



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Olotzaga
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegata Zentzu 101
R.P.S. 31/06

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMDA, Bizkaia
Tel. 090 482 839 / Fax 090 290 717

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Igorren Ebatzi plataformea sinadurak batzean dabil

Erredakzioa

Maiatzaren 6an, Igorren erabagiteko eskubidearen gaineko herri galdeketea egingo dabe, Zuia, Aiaraldea, Lezama, Portugalete eta beste herri batzuk batera.

Hainbat ekintza egingo dabez hileotan, mahaiak ipini sinadurak batzeako, herri batzar zabala, zinegotzien babes jaia eta talo

egunak berbarako.

Igorren Ebatzi plataformako kideak abenduaren 24an, Olentzero Egunean, hasi ziran sinadurak batzean. Plataformeak 400 bat sinadura lortu behar dauz galdeketea egin ahal izateko; erroldearen %10a. Plataformakoak zezeilaren akabuan amaituko dabe sinadura horreek batzean. Gau Lora Akeitegian be sinatu ahal dabe igorreztarrek.



Abenduaren 24an hasi ziran sinadurak batzean Igorren.

DIMA

Aguazil plaza atera dau Dimako Udalak hileon

Erredakzioa

Dimako Udalak deialdia egin dau aguazil plaza beteteko. Karre-rako funtzionario plaza beteteaz gain, Udalak azterketak gaintzen dabenakaz lan boltsea osatu gura dau.

Bete beharreko betekizunetako batzuk honeexek dira: eskolartze egiaztagiria edo baliokidea eukitea edo hori lortzeako aukerea eukitea; 2. hizkuntza-eskaki-zuna edo baliokidea egiaztatuta izatea; eta azkenik, ibilgailu ofiziala gidatzeko gidabaimena izatea. Hiru betekizun horreek eskabideak aurkezteko epea amaitzen dan egunean egon behar dira indarrean.

Urtailaren amaierara arte emon daiteke izena eta informazio gehiago gura izan ezkeru www.dima.eus webgunean dago eskuragarri.

ARRATIA

2018ko Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako lehenengo tailerra zezeilean izango da



Zahira Montalvo

Erredakzioa

"Soinudun biajea" tailerragaz zabalduko da 2018ko programazioa. Igorreko Udalak antolatuta zezeilaren 9 eta 10ean izango da, Igorreko Kultur Etxean. Barikuan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik

20:00etara egingo da tailerra.

Tailer hau norbere gorputza soinu-tresna moduan ezetuteko eta jolasean eta talde antzerkigintzan murgiltzeko desioa daukien andrazkoentzako da. Ez dau ardura antzerkigintzan esperientziarik eukiteak edo ez.

Tailerra Komunikazioa lan ildo barruan dago eta dobakoa da. Zahira Montalvo Herreroek erango dau aurrera gazteleraz izango dan tailerraren dinamikea. Montalvo Arte dramatikoan aditua, gizarte eta kultur animatzailea eta gizarte-hezitzailea da.

Izena zezeilaren 2ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean 94 631 17 17 telefonoan eta www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna webgunean. Era berean, Arratiako edozein udaletan be emon daiteke izena.

baserrigintza
OBRA BEREZIAK

GURE LANA
Eraikuntza zein eraberritze eta birgaitze proiektu iraunkor eta jasangarriak.

ZERBITZUAK
Proiektuak, eraikuntza, baserriak birgaitzea eta euskal arkitektura-ondarea eraberritzea, hau guztia naturarekin bat eginda.

• Igorreko Industrialdea E2 •
• Telf: 610 431 499 / 652 774 052 •
• sunaeraiketak@gmail.com •
• www.baserrigintza.com •

ZEBERIO

Andrazkoen irudiaren trataerea hedabideetan aztertzeako aukereaErredakzioa

Zeberioko Bardintasun sailak herritarrai zuzendutako "Komunikabideak" tailerra egingo dau urtailaren 26an. Ordu eta erdi iraungo dauan tailer hau arrastiko 19:00etan izango da udaletxeko 2. solairuan.

Ekintza hau Berdinbidean Bizkaiaren 2018ko programearen barruan dago, eta gaia "Mikromatxismoak eta biolentzia sinbolikoa komunikabideetan" da. Izan be, Bardintasun Planaren barruan dagoan helburu nagusietako bat andrazkoaren irudiaren trataera ez sexista bihurtzea da.

Momentuz saio bakarra izango dauan tailer hau Itxasne Martinez, Murgibe taldekoak, zuzenduko dau. Bertan parte hartu ahal izateko alde aurretik izena emon behar dala gogorarazo gura dau Udalak.



ARRATIA

Alkarregaz proiektua martxanErredakzioa

Gurutze Gorriaren Alkarregaz proiektuak Lehen Hezkuntzatik DBHra doazen ikasleak etapa aldaketa horretan laguntzea eta Arratiako nerabeen arteko hartu-emonak sortzeako espazio bat sortzea ditu helburu nagusi lez.

Laugarren edizino honetan hainbat ekintza antolatuko dira urtailetik maiatzera arte eta ekintzak hileko atzen zapatuan izango dira.

Lehenengo topaketan alkar ezetuteaz gainera Arratia Institutuko eraikina ezetuko dabe. Proiektuaren aurkezpena Arratia Institutuan, urtailaren 27an, 17:00etatik 20:00etara izango da. Lehenengo egun horretan institutuko zuzendariak ondo etorria egingo deutse ikasleai.

Hurrengo bi topaketak be institutuan bertan egingo dira, zezeilaren 24an eta martiaren 22an.

Aprilaren 28an, barriz, ibilaldi bat antolatu dabe eta pasau dan urtean lez Bermeora joango dira.

Programeari amaiera emoteko, aste-buru pasa egingo dabe maiatzaren 26 eta 27an.

IGORRE

Udalarena da Lehendakari Agirre kalearen eskumenaErredakzioa

Saihesbidea egin zanetik hona, hainbat hartu-emon izan ditu Igorreko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiagaz Lehendakari Agirre kalearen jaubetza aldatzeko. Igazko udagoienean bi erakundeek hitzarmena adostu eben, eta jaubetza aldaketea adierazoten dauan dokumentua prestatu zan. Holan, Lehendakari Agirre kalea Udalaren esku gelditu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, errepidearen zati hori herrira egokitzeko aldaketak egin ahal izateko dirulaguntzea opatu eutsan Igorreko Udalarai baina aurreproiektu bat prestatzeko eskatu eutsan. Udalak, aurreproiektu bi prestatu ebazan. Lehenengoan, eleiza ondotik Renault ingurura espaloia egingo dau, zebra-bide eta zugatzakaz. Bigarreanean, Garbe eta Arantzazu arteko tartea oinez egiten daben personeren segurtasuna bermatu gura dau. Horretarako, zebra-bide bat pintauko da, egurrezko alboko barrera bategaz Arantzazurako bazterbidea babestu eta bide batez, autobus geltokia txukunduko da.

Bi proiektuakaz batera, 340.000 euroko aurrekontua aurkeztu zan Bizkaiko Foru Al-

dundian. Aldunditik 200.000 euroko laguntzea emoteko prest egozan.

Aitatutako guztia urriaren 23ko plenoan onartu zan aho batez, eta dagoeneko "jostze akta" bi erakundeek sinatuta daukie. Hemendik aurrera "Lehendakari Agirre kaleari buruzko ebatziak herritarrek hartu ahal izango dabez" azaldu dabe udal ordezkariak.



Lehendakari Agirre kalea.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

ARANTZAZU/IGORRE

Arantzazu eta Igorre lotuko dituan oinezkoentzako bidea

Erredakzioa

Gero eta gehiago dira Orobiko kamino zaharra erabilten daberen oinezkoak. Horrek autoak arazoak sortu ditu, horreen abiaduran ondorioz. Oinezkoen segurtasuna handitu guran Arantzazu eta Igorreko Udalek errepide horretan aldaketa batzuk egitea ebatzi dabe.

Errepidea norabide bakarrek bihurtzea izan da hartutako erabakia. Holan, Arantzazutik Igorre-antza datozen autoak Orobiko errepide zaharretik joan ahal izango dira, eta Igorretik Arantzazura joateko, bariantea edo herritik doan bidea erabili beharko dabe.

Udalek oinezko eta bizikletaz pasean ibiltzen diranentzako oinezbidea egingo dabe errepideko erreia bat eurentzat gordez. Oinezkoak lehentasuna izango dabe bide horretan eta bizikleta eta oinezkoen artean ez da es-

pero arazorik sortuko danik, auzotarrak egindako batzarretan kexka hau aitatu dan arren.

Proiektu honen jarraipen moduan eskolen goiko aldean sortuko dan aldaketa kexka iturri be bada. Horregaitik, hainbat batzar egin dira auzotar, guraso eta bestelako herritarrakaz.

Proiektuari aldaketatxo batzuk be egin eutsiez hiritarrak eta lanak amaitutakoan kontuan har-

tuko dirala esan dau Beinat Anzola Igorreko alkateak. Era berean, eskolen goiko kalea planoetan zehaztu eta beste batzar batean azaltzeko eskaria egin eben hainbat herritarrek; hori dala eta, Udalak aurrerago beste batzar bat deituko dau.

Bestalde, abenduan hasi ziran konponketa batzuk egiten; besteak beste, margotu eta piboteak ipini orduko errepidearen egoera hobetzeko asfalto lanak hain zuzen. Argiztapena be hobetu gura dabe aurrera begira farola batzuk ipiniz. Halanda be, lan potoloenak aurrerago hasiko dira, "auzotar batzukaz detaile batzuk zehaztu eta udal bietako eremuak batera egiteko koordinatu ostean" dino Anzolak.



Arantzazu eta Igorre arteko bidea.

ARRATIA

EuskarAbentura aurkeztu dabe, Euskal Herriko gazteai zuzendutako abentura egitasmoa

Erredakzioa

"Jzioqui dugu" izenburupean, 2018ko garagarrean Euskal Herriko herrialde guztiak zeharkatzeko abentura izango da EuskarAbentura, eta 16 eta 17 urteko gazte euskaldunai dago zuzenduta, hau da, 2001-2002 urteetan jaiotakoai.

Abentura horretan Done Jakue bideak Euskal Herrian egiten dauan tartea jarraituko da, eta Unesco Euskal Herrian izentutako Gizateriaren Ondare guztiak bisitatu dira, besteak beste, Santimamiñeko kobazuloak edota Bizkaia Zubia. Holan, abentura garagarrean 1ean abiatuko da eta 31n amaitu, eta 120 gazte osatutako taldeak Maule, Donibane Garazi, Iruñea zein Baiona bisitatu ditu, ondoren Kostaldeko ibilbidetik jarraituko dau, Getxoko Bizkaia Zubian amaitu arte.

Zazpi herrialdeetako eta diasporako gazteak osatuko dabe espedizio taldea, eta ez da matrikula kuotarik ordaindu beharko. Halanda be, parte hartu ahal izateko gaz-

teak lan bat egin beharko dabe, eta hiru gai orokor dagoz aukeran horretarako: euskera eta zure herria, euskera eta emakumeak, eta euskera eta itsasoa. Bost diziplina landu leitezke: historikoa, literatura, plastikoa, musikala eta ikus-

entzunezkoa. Horretarako epea martiaaren 18an amaituko da eta espedizio beka lortuko daberen zerrendea apirilaren 16an argitaratuko da. Oinarriak eta bestelako informazioa www.euskarabentura.eus atarian konsultatu leitezke.

Egitasmoaren helburu nagusia euskerearen normalizazioan laguntzea da, eta, bide batez, ingurumena errespetatea edota bizi ohitura osasuntsuak lango balioak zeharka transmititzea be lortu gura da. Hainbat erakundek osatutako talde sustatzailea dago proiektuaren atzean, besteak beste, Eusko Jaurlaritza edota Nafarroako Gobernua.



ARRATIA

Gueñes-Itsaso goi tensinoko linea egiten uda ostean hasiko dira

Goi tensinoko lineak 400 kilowatteko indarra eroango dau Bizkaiko kostaldetik Itsasoko zentralera. Lanak hasteko bi baimen eskuratzea falta jakoz enpresa sustatzaileari eta espero da udagoienerako lan horrek hasita egotea.



REEko martian Igorren izan ziran udal txer aurrean egindako konzentrazioa.

Erredakzioa

Gueñes eta Itsasoko Iberdrolaren argindar zentrala lotuko dituan goi tensinoko (400 kW) linea aurten hasiko dira egiten. Espainiako Gobernuaren Energiarako Zuzendaritza Nagusiak administrazio-baimena azaroaren 29an emon eutsan REE Red Electrica de España enpresa sustatzaileari. Behar-beharrezko kako hori gaituta, obra uda ostean hasteko moduan egongo dala aurrekusi da. Horretarako, onura publikorako izentapena eta obra hasikerearen eskaria besterik ez jako falta enpreseari.

Goi tensinoko linea elektrikoak Bizkaiko hamazazpi herri zeharkatuko ditu eta Arratiatik pasauko da; Zeberio, Bedia, Igorre eta Lemoatik, hain zuzen be. Bizkaia oso mendebaldetik hegoaldera zeharkatuko dau linea horrek. Bizkaiko Gueñes herritik hasita Gipuzkoako Itsaso herriraino; hau da, 72 kilometroko luzeera dauan tensino handiko linea elektrikoak egin gura dau Gobernuak.

2010. urtearen amaieratik administrazio-baimena eskatuta baegoan be, Espainiako Energia, Turismo eta Agenda Digital ministerioak aurten emon deutso baimen hori Red Electrica de Espainiari. Enpresek espero dau uda honetarako baimen guztiak

lortuta izatea, eta gitxi gorabehera bi urteren buruan proiektua amaituta izatea.

Herrietako udalen erantzuna

Goi tensinoko linea Arratiako herri batzuetatik pasauko zala jakindakoan, Igorre, Bedia eta Zeberioko Udalak Espainiako Energia-politika eta Meategi Zuzendaritza Orokorrean txosten bana bidali eben proiektu horren kontrako alegazioak egiteko.

Alde batetik, Zeberioko Udala aurretik agindutako lan batzueri eragin eikioela kezkatuta agertu zan; bestetik, Bedia eta Igorreko Udalak ingurumen eta osasunerako ekar eikezan balizko kalteak nabarmendu zituen aurkeztutako alegazioetan. Igorreko Udalak, gainera, argi eta garbi itxi eban proiektua ez dala onura publikokoa; era berean, zalantza agertu zituan elektromagnetismoaren kalteak ekiditeko hartu beharreko neurriak beteko ete diran.

Egindako alegazioai igazko abenduan erantzun eutsien proiektua gauzatuko dauan enpresa sustatzaileak. Erantzun horretan onartu dau kasu batzuetan segurtasun distantziak ezin izango dituala bete; izan be, Arratiako inguruak dituan garapen eta geografia ezaugarriak ez dabe hori bermatzeko aukerarik emoten.

CATALUNYA

Kataluniako auzia: ibilbide historiko laburra

Nork ez dau entzun edo eztabaidatu "Kataluniako auzia"ren gainean!

Gai honek historian oinarritutako zuztarrak ditu. Goazen bada, ibilbide historikoa egitera. Horretarako, Erregimen Zaharrera joko dogu, XVII. gizaldiko gertakizunakaz.



Bartzelona.

Angel Larrea Beobide

Katalunia txarto egoan XVII. mendean erdikaldean. Espainiar Koroa sortu zan ezkerotzik, Errege Katoliko denporetatik hasita, Kataluniak pisu politiko handia galdu eban Inperioaren kontuetan, Gaztelaren mesedetan. Beraz, XV. mendean amaieratik talde agintari kataluniarrak zarratuta gelditu ziran, euren eremua gobernatzan.

Katalunia, aurreko gizaldietan, Erdi Aroan, Aragoiko Koroaren

barruan egoan eta orduan sortutako hartu-emonak eta loturak hizkuntza eta kultura katalana eukiezan lurraldeakaz (Valentzia eta Balear Irlak), baita Aragoigaz be, ez eben ondo funtzionatzen inperio espainiarrak Mediterraneoaren espazioan egin behar eban politikea (Italiako posesinoetan edo Inperio turkiarraren aurkako gerran) Gaztelako nobleen kontrolpean egoalako. Antxinako komertzio edo merkataritza, Mediterraneo Itsasoan egiten zana, desagertu-

ta, Bartzelonako uria eta bertako merkatarien eta artisauen gremioak be ez ziran koiuntura onean gelditu; bandoleroen taldeak eta kataluniarren arteko desadostasunak gero eta handiagoak egiten hasi ziran gainera.

Krisi egoera horrek guda sortu eban, izakera aurre-nazionalista daukan gerrea, "Segalarien Gerrea" (1640-1652) izenez ezetu dana. Kataluniarren matxinada hori orduko agintarien aurka egin zan, herria nazinoa zala erakutsiz.

Hamabi urte iraun eban guda horretan, segalariak edo nekazari kataluniarrak izan ziran protagonistak, baina espainiar armadak menperatu zituan. Gogoratu Kataluniako Ereserki Nazionala "Els Segadors" izenekoa segalari honeen omenez dala.

XVII. Gizaldian krisi handia egoan, Kataluniaz gain, Iberiar Peninsulako beste lurraldeetan be krisia orokorra zan. Portugalgo erreinuak, 1580tik Inperio espainiarrean integrata egoana, aprobexau egin eban gerrea egiteko. Garaipena lortu eta gero, Portugal independizau egin zan 1668. urtean. Gauza bera gertatu zan hamarkada batzuk lehenago Holandan: gerra luzea egin ostean, Inperio espainiarraren interbenzino militarra gauditu eta independizetea lortu eben.

Karlos II.a erregea 1700. urtean ondorengo zuzen edo seme barik hil zanean, Austriako Etxea edo Dinastia kolokan jarri zan. Azken mende bietan Espainiako Erresuma gobernatzan egon zan familiak ezin eban Koroa mantentzen beste kandidatu edo hautagai bat egoalako. Holan, hasi zan "Ondorengotza Gerrea" (1701-1714) deitutakoa.

Kataluniarentzat konflikto hori lehen komentau doguna baino askoz larriagoa gertatu zan. Izan be, Katalunia eta antxinako Aragoi Koroako gainetiko erresumak Austriar Etxeko hautagaiaren alde jarri ziran. Aurrean, indar arerioak Borbon Etxeko printze hautagai frantsesaren alde jarri ziran, besteak beste honeexek: hispaniar lurraldeak eta Frantziako erresuma. Gatazkaren atzen asaltoa Bartzelona urian gertatu zan, 1714an, eta garaipena Borbon familiako Felipe V. errege barriarena izan zan. Bartzelonako setioa urri lehenengoaren 11n amaitu zan. Urtero egun horretan, "Diada" edo Kataluniako Egun Nazionala ospatuten da, Rafael Casanova buruzagi kataluniarra omentzeko.

Porrotaren ondorio latzak behar ikusi ziran: Bartzelonako etxeak hondatu egin ziran, bertako biztanleek euren eskuakaz

etxe propioak haustu behar izan ebezan irabazleek behartuta. Irabazleek irabazleek militarra eregi eben (gaur, Ziudadela-ko Parkea da). Gotorlekua ez zan kendu Bartzelona modernoa eregi zan arte, 1859tik aurrera Ildefonso Cerdá arkitekto kataluniarraren Plana egiten hasi arte. Plangintza horrek barriztau eban uria guztiz, Zabalgunean "Diagonal" edo "Rambla" izeneko kaleak sortuz (ikus argazkia).

Hori guztia kataluniarren iniziativa pribatutik finantziatu zan. Espainiar gobernua ia ez eban dirurik ipini; oztopoak bai, ostera. Gerra irabazleek beste gotorleku militar bat instalatu eben Montjuic-eko gainean, artilleriagaz Bartzelona bonbardatzeko modukoa. Hori 1842 eta 1843ko urteetan gertatu zan, Espartero eta Prim jeneral liberalakaz. Baina neurririk gogorrenak 1716. urtean heldu ziran, gerrea amaitu eta urte bigarrenean: Felipe V. erregeak, errepresalia moduan, lurralde galtzaileetan bizi ziran guztien eskubide publikoen abolizinoa dekretatu ebanean.

Lege horreen bidez kataluniarren dokumentazio ofiziala gaztelaniar -eta ez katalanez- idatzita agertu behar zan; eta Katalunian militar bat finkatu eban, erregearen konfiantzazko gizona, gobernadore karguaz. Baina erregearen politika zentralizatzailea ez zan hor amaitu. Gaztelako legeak jarri ziran bertako ordez. Kataluniako unibersidade gehienak kendu egin ziran. Erakunde garrantzitsuak, Kataluniako Parlamentua eta bere Gobernua, "Generalitat" deitua be kendu egin ziran. Ezin da ahaztu Generalitateko presidentea Europako kargu politiko zaharrenean artean dagoala, XIV. mendean sortu zalako.

Katalunia suminduta gelditu zan hurrengo hamarkadetan. Are gehiago, kataluniarrak ia atzeritar edo kanpoztarrak balira moduan tratatuak izan ziran, Espainiar inperioko beste edozein biztanleren pare. Hara hemen kasu bat: kataluniarrek ezin eben komertzio edo beste aktibidadarik egin kolonietan, Amerika deskubridu

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com





Bartzelonako defentsak (1714-09-11). Margolaria Antoni Estruch.

zantetik, 1492tik 1778ko urtera arte, Karlos III.aren erregealdira arte. Hau da, ia 300 urtez egon ziran marjinatuta. XVIII. gizaldia-zen azken hamarkadetan hasita, 1898ra arte Kuba, Puerto Rico eta Filipinak azken koloniak, galdu arte, kataluniarrek be izan eben aukera komertzioan egiteko eta hanga lurraldeetan biziteko. Arlo sozio-ekonomikoan, aristokrazia kataluniarra be ia guztiz desagertu zan: batzuk erbestera joan ziran, exiliatuta, eta gainetikoe espainiar nobleziagaz bat egin eben.

Bestalde, burgesiak, klase sozial dinamiko orduan, eta laborari ofiziodunak aktibidade ekonomiko handia egin eben XVIII. mendean amaieran hasita eta XIX. mendean zehar. Garaiotan Katalunia Europa mediterraneoaren lehen gizarte industrialia bihurtu zan. Transformazio edo aldaketa horretan ez da ahaztu behar Kataluniara ailegau ziran etorkinen parte-hartze handia. Lehen emigrante pobre horrek Frantziako hegoaldeko okzitano hizkuntza berba egiten ebenak izan ziran. Industrializazio prozesuan, ostera, azpimarratzekoa da ehungintzearen sektorea, familia mailako ehunak egiteko fabrika edo tailer ugari sortu ziran Bartzelonako Vallés izeneko eskualdean batez be.

XIX. mendean erdialdean hasita, "Renaixença" mobimentu kulturala agertu zan, Erromantizismoaren esparrutik sortua, kultura eta hizkuntza katalanak goratuteko eta bultzatuteko helburu ebala. Hurrengo hamarkadetan milaka etorkin hasi ziran heltzean Bartzelonara eta bere ingurura, asko espainiar lurralde txiroenetatik.

Fenomeno migratzaile horrek erreakzioa eragin eban Kataluniako gizartearen: nazionalismo kultural edo "katalanismo" hori nazionalismo politikoa bihurtu

zan. Burgesia katalana eragile izanik, aukera politiko progresistak (errepublikanismo eta federalismoa) eta konserbadoreak (nazionalismoa eta erregionalismoa) praktikara eroan ebazan. Horren adibide da esate baterako, erregionalismo eskoitiarra "Lliga Regionalista", geroago "Lliga Catalana" izeneko alderdi politikoa eta bere liderra Francesc Cambó.

Era berean, XIX. mendean azken hamarkadetan, beste ideologia politiko batzuk be agertu ziran Katalunian: sozialismoa eta, batez be, anarkismoa. Eta honek lotuta egozan sindikatu podetsu bi honek: UGT sozialista eta CNT anarkista. Karlismoaren eragin politikoa, barriz, mugatua izan zan. Arrakasta politikorik lortu ez arren, azpimarratzekoa da F. Pi i Margall politikoa katalana, bera izan zalako estatu mailan federalismoa aldarrikatu eban lehena, hau da, lurralde-antolamentuaren sistema federala.

Polarizazioa gero eta handiago zan batez be ekonomia arloan. Espainiako lurralde askoren atzerapenaren eta Kataluniako dinamismo sozio-ekonomiko eta kulturalaren artean sekulako aldea egoan. Inperio espainiarren atzen lurralde galdu ostean, 1898tik aurrera, Katalunia bihurtu zan arazo politikoa nagusia Madrilgo gobernuko agintarientzat, han gertatzen ziralako auzi arriskutsu bi honek: "separatismoa" eta langileria aktibidade erradikala.

F. Cambó-ren proposamenaren arabera, zera egin behar zan: katalanen presentzia politikoa areagotu Madrilan, gobernuaren inguruan, Espainiak behar zituen erreformak eta politikak aurrera atera ahal izateko. Baina oztopoak sano handiak izan ziran: alde batetik gizartearen sektore podetsu konserbadoreak (lurjaube handiak, Eleiza,

Armada...); eta bestetik, aktibista erradikalak eta terroristen ekintza bortitzak. Atzenean, aitatutako politikoa kataluniarren proposamenak porrot egin eban, eta egoera nahastu horretan Miguel Primo de Rivera, Kataluniako kapitan jenerala Diktadura militarra ezarri eban Espainia osoan (1923-1930), hain justu Europako politikan komunismoa eta batez be faxismoa gorantza joaten hasi ziran momentuan.

1931ko udabarran egindako udal hauteskundeetan errepublikanoak atera ziran irabazle. Erregeak alde egin behar izan eban eta Konstituzio barria ezarri zan. Momentu politiko itxaropentsua izan zan, baina arazo handiak be baziran, esate baterako, nekazarien lurren auzia.

Errepublikanismoa zabaldua egoan gizarte kataluniarrean, baita autonomia politikoa lortzeako gogoia be bai. Egoera horretan, 1932an, Autonomia Estatutua onartu egin zan Katalunian, Espainian lehena. ERC (Esquerra Republicana de Catalunya) alderdi politikoko buruzagiek protagonismoa hartu eben orduan, Francesc Macià-k "Estat Catalá" aldarrikatu ebalarik, eta 1934tik aurrera Generalitateko presidentea zanak, Lluís Companys-ek Errepublika Kataluniarra proklamatu eban, beti be "Iberiar Errepublikaren Federazioa"ren barruan (ikus argazkia).

Ausardi politiko horrek ondorioak ekarri eutsazan, Gerra Zibila amaitu ostean, 1940. urtean hain zuzen be, Montjuic-eko gazteluan urte batzuk preso egonda gero, Companys-en fusilamentua agindu eban Francok. Ondoren, ERCko beste politikoa batek hartu eban haren kargua, exilioan jada, Josep Tarradellas presidentea. Francok

eta tropa nazionalak Gerra Zibila hasi eta irabazi aurretiko tartean, esperientzia guztiz berezia gertatu zan Espainia errepublikanoan eta, arean indartsuago, Katalunian: Anarko-sindikalismoaren prozesu iraultzailea: fabriken, propietateen eta nekazarien esplotazioen kolektibizazioa.

Diktadura frankistearen denporan, oposizio politiko demokratiko katalana bizirik mantendu zan, exilioan eta klandestinitatean, lehen aitatutako ERC, PSC eta PSUC ezkeriak, Unió Democrática eskoitiarra, eta beste alderdi eskoitar sortu barria, Convergència Democrática de Catalunya, Jordi Pujolen agintaritzapean.

Franco hil eta gero, "Transizioa"ren urteetan, 1978ko Konstituzioaren testua idatzi ebenen zazpi kideen artean, politikoa kataluniar bi izan ziran: Miquel Roca, Convergència i Unió koalizioa, eta Jordi Solé Tura, PSUC-koa. Protagonismo katalandarrak hurrengo hamarkadetan be iraun eban espainiar politikan.

2003-2010. urteen artean, Generalitateko presidentea sozialisten garaian, Estatutu barriaren aldeko apustua egin zan, baina Jose Maria Aznar, gobernu zentralako presidentea eskoitiarrak, gehiengo parlamentarioa eukala aprobetxatuz, Autonomien garapenaren aurkako politikari emon eutsan hasikerea: kompetentziak ez transferidu; presino politikoa egin, Tribunal Konstituzionalaren aurrean oztopo legalak jarteko. Ondorioz, Kataluniako Estatutuari ezarritako mugak eta errecurso judizialak "Procés" deitutako mobimentu sozio-politiko soberanista eta independentista eragin eben, 2009an hasi zana eta gaur egun pil-pilean dagoana.

1931ko udabarran egindako udal hauteskundeetan errepublikanoak atera ziran irabazle. Erregeak alde egin behar izan eban eta Konstituzio barria ezarri zan. Momentu politiko itxaropentsua izan zan, baina arazo handiak be baziran, esate baterako, nekazarien lurren auzia



Francesc Macià eta Lluís Companys, ERCren sortzaileak.

PELOTEA

**Dimako
III. Pelota
Txapelketako
finalen
emoitzak**Erredakzioa

Gabonetako III. Pelota Txapelketaren amaierara urtailaren 5ean izan zan, orduan jokatu ziran finalak-eta. Umeen partiduak eta One Wall erakustaldi mistoek osatu ebezan finalak.

tu ebezan finalak.

Finaletan giro polita eta maila ona egon zan, nahiz eta ez zan sorpresarik egon. Izan be, Haimar Egaña, dimoztarra, eta Igor Egileor, zeanuriztarra, izan ziran txapelkunak Alebin mailan.

Kadeteetan, barriz, Lemoako Ibon Kantero eta Zeanuriko Maren Emaldi gailendu ziran, Dimako Xabier Rekalde eta Orozkoko Aimar Amondok osatutako bikotearen aurrean.

Nagusietan, ostera, Dimako Ekhi Ziarrusta eta Algortako Inhar Ugartek irabazi Eben txapela, Kimetz Zapiko dimoztarra eta Txaber Zabala markinarraren kontra jokaturako partiduan.

MENDIA

**IV. Kolazinoko
Mendi Eguna
martiaren 24an
Bedian**Erredakzioa

Urtero moduan hiru modalidade izango dira aukeran; mendi marxia, BTT eta mendi lasterketa, partaide bakotzak gustukoena aukeratu dagian.

Martiaren 24an izango dan aurtengo edizioa mendi marxiagaz hasiko da 08:00retan. 20 km. eta 1.000 metroko desnibel positiboa dauka ibilbide honek. Ordu

batera, BTTko lasterketaren txandea izango da. Kasu honetan 34 kilometroko ibilbidea topauko dabe partaideek, 1.200 metroko desnibel positiboagaz. Mendi lasterketaren txandea izango da 10:00etan. 24 km. eta 1.500 metroko desnibel positibodun ibilbidea. Amaitzeko, 10:30ean emongo jakie urtekerea mendi lasterketako Junior eta Kadeteai, 15 kilometro eta 800 metroko desnibeldun ibilbidea egin dagien.

Kolazinoko Mendi Eguna Euskal Herriko Mendi Federazioaren rankingerako proba puntuagarria izango da eta honek izen-emoteetan bultzadaxoa emongo deusala dirudi.

Izen-emoteai jagokonez, martiaren 18rarte egongo dira zabalik.

MENDIA

**2018an ez da Gorbeia
Suzien Ternua mendi
lasterketea antolatuko**

Sheila Aviles kataluniarra Gorbeia Suzieneko atzenengo edizioan.

Erredakzioa

Antolatzaileak euren webgunean eta sare sozialetan plazaratutako ohar laburrean azpimarratu dabenez, "oso pozik" dagoz lasterketeak urteotan egin dauan bideagaz; izan be, Arratiako eta, batez be, Gorbeiaiko paraje ikusgarriak ezetutera emoteko sortu eben Gorbeia Suzien mendi lasterketea 2012an, baita euskal kultura zabaltzeko be.

Kirol arloan gauzak ondo joan

dirala dinoe, lasterketa txiki eta herrikoi legez hasi zana, urte gutxian European erreferente bihurtu dalako. Parte-hartzaileak gustura hartu dabene lasterketea da Gorbeia Suzien eta, gainera, 2017ko edizioan Sky mailako Europako Txapelketea izan zan. "Europa mailako erreferente izatera heldu gara, hau guztiau gure hizkuntzea, kultura zein gure ingurunea, Gorbeia, Zeanuri eta Arratia, Europaren begiradapean jarrita", adierazo dabe Suzien Mendi Klubekoak sare sozialetan.

Ointxe arteko balantze ona egiten dabene arren, 2018an ez dabela Gorbeia Suzien antolatuko azaldu dabe "hainbat arrazoirengaitik, lasterketarik ez antolatzea ebatzi dogu" inoen oharrean.


Zeanurin eta Arratian urtero arrastoa ixten izan dauan ekimena izan da Gorbeia Suzien, asteburu osoko egitarau eta guzti. Lasterketa nagusiaz gain, lehenengo urteetan martxia eta geroago Lasterketa herrikoa be egiten izan da, laburragoa, oinez zein galapan egitekoa.

"Eskerrak emon gura deuseguz batez be herritarrei, baita parte-hartzaile eta babesleai be, zuek barik egindako lana ez litzateke-eta posible izango", gehitu dabe.

Hemendik aurrerako Gorbeia Suzien lasterketaren etorkizuna ez dabe zehaztu; dana dala, "ez dogu baztertzen 2019an lasterketea egin ahal izatea" esan deusie BEGITURI.

Lasterketa onena

Hilaren 13an Suzien Mendi Klubeko kideak diran Alberto Sagarra eta Igor Lopez Asturiaseko Pola de Siero herrian izan ziran Nortrailek antolatutako Trail&Run Festival jaialdian 2017ko Espainiako estaduko lasterketa onenari saria jasoteko.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

MENDIA

Bigarren kanpalekuan da dagoeneko Alex Txikon

Erredakzioa

Himalaian da Alex Txikon, abenduaren 24an hasi zuen espedizioan munduko mendirik altuena, Everest mendia (8.848 metro) neguan eta oxigeno artifizial barik igoten saiatzeko, eta daborduko bigarren kanpalekura heldu da lantaldeko kideakaz batera.

Arratiatik abenduan abiatu ondoren, urtailaren hasierako egunetan heldu zuen oinarriko kanpalekura, eta bertako klimara egokitzeari ekin eutsen. Oin, barriz, bigarren kanpalekura heldu da eta ingurua ekipetako lanetan

dabil. Lau lanegun gogor izan dabez Khumbuko izotz jausian barrena, 6.050 metroko altuerara heltzeako. Bigarren kanpalekuan dagoz oin mendizaleak 6.500 metrora. Hasierako aurreikuspenen arabera, zezeila amaieran zapaldu gura dau lemoztarrak tontorra.

Everest filma ikusgai Igorren
Igorrenko Lasarte Aretoak eta Ganzabal Mendi Taldeak alkarregaz antolatuta, *Everest* filma ikusgai egongo da Igorren, urtailaren 20an, iluntzeko 19:30ean. Lan horretan Everest mendia neguan

eta oxigeno artifizial barik igoten saiatzeko Alex Txikon egindako

aurreko espedizioa kontetan da; sarrerea dobakoa izango da.



Alex Txikon.

Argazkia: @AlexTxikon.

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanilla lesionauta

Erredakzioa

Ziklo-kroseko Master 40 kategorian dago Igorrenko txirrindularia dan Manu Quintanilla. 2015etik Deobike Team taldeko partaidea da eta emoitza onak izan ditu.

Aitatzekoak dira, batetik, Bizkaiko Txapelketea lau bider irabazi izan daua; eta bestetik, igaz Espainiako Txapelketea, Valentzian egin zuen lasterketan, hirugarren postua lortu ebal.

Lehiatutako atzenetariko lasterketa bat Izarran, Arabako herrian, izan da, igazko abenduaren 30ean egin zuen 2017ko Euskadiko Ziklo-kros Txapelketea.

200 txirrindulari inguruk parte hartu eban egon ziran sei lasterketan; hau da, kadeteak, andrazkoak, eliteak, gazteak, masterrak eta 23 urtez azpiok lehiatu ziran bertan.

Zuyano Txirrindularitza Klubak antolatutako proba honek 2.550 metroko zirkuitua izan eban berdara eta asfaltoa tartekatuta eta atzen proba 13:30ean izan zuen.

Buelta bi falta ziranean Manu Quintanillak, 406 zenbakidun dorsala eroanik, mina hartu eban. Halanda be, Demobike Team-eko partaidea aurrea segidutea ebatzi eban. Quintanilla Master 40 kategorian hirugarren gelditu zuen sailkapenean, 47:30eko denborezagaz; Josu Isasi Flores txapeldunarengandik minutu eta erdira.

Urtailaren 6an, barriz, Bizkaiko Txapelketea izan zuen Abadiñon. Muskulu bikian min arina izan arren, Quintanilla proba joan zuen. Urtekerak ona egin eta gero, handik 300 metro eskasera, barririo lesionatu izan eta ezin izan eban jarraitu. Hori dala ta, Legazpin urtailak 12, 13 eta 14an lehiatu dan 2018ko Espainiako Ziklo-kros Txapelketan ezin ezin dau parte hartu.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A eta B taldeak lidertzan

Erredakzioa

Arratia taldeko andrazkoen talde biak denporaldi itzela egiten dabil eta lider dira sailkapenean.

Arratia A taldeak urteko lehenengo partidu biak irabazi ditu, hileko lehen astegoienean 0 eta 3ko emoitzezagaz menperatu eban Mariño taldea. Hilaren 14an, barriz, etxean Hernaniren kontra jokatutako partiduan atea hutsean itxi eban eta Arratiak gol bi egin zituen. Hurrengo partidu, hilaren 21ean jokatuko dau Beasainen Goierri Gorri taldearen kontra arrastiko 16:30ean. 18 jardunaldi eta gero 45 puntu ditu Arratiak.

Arratia B

Andrazkoen B taldeak be urte hasiera honetako lehen bi partiduak irabazi ditu, 8 eta 0 Orduñaren kontra eta 0 eta 5 jokatutako atzen partiduan Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra. B taldea be lidertzan dago 12 jardunaldi eta



Andrazkoen Arratia A taldea eta Hernaniren arteko partidu.

Argazkia: @arratia_neskak.

gero 31 puntuz. Hurrengo partidu Urbietan jokatuko dau Ugao taldearen kontra hilaren 20an, iluntzeko 19:45ean.

Gizonezkoak be ederto

Arratiako gizonezkoen taldeak be atzen partidu biak irabazi ditu. 1 eta 3 egin eban Apurtuarteren

kontra, eta hilaren 13an Igorren jokatutako partiduan 1 eta 0 irabazi eban Elorrioren kontra. Hurrengo partidu Padura A taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 20an arrastiko 16:30ean. 16 jardunaldi jokatuta eta gero zazpigarren postuan dago Arratia eta 25 puntu ditu.

B taldea

Arratia B taldeak be 6 puntu lortu ditu atzen partidu bietan, Arratia 1 Zalduo 0 eta Larramendi Ik. 1 Arratia 2 emoitzezagaz. Hurrengo partidu Urbietan jokatuko dau Arratia Bk Acero taldearen kontra. Partidu hilaren 20an jokatuko da arrastiko 17:30ean. Arratia B seigarren dago sailkapenean eta 24 puntu ditu.

LemoaHarrobi

14 jardunaldi eta gero Lemoako taldea hirugarren postuan dago 31 puntuz. LemoaHarrobik 0 eta 3 irabazi eban Basurto B taldearen kontra urteko lehenengo partiduan, eta etxean jokatutako atzen partiduan bana bardindu eban San Antonio taldezagaz. Hurrengo partidu Fruizen kontra jokatuko dabe Lemoakoak hilaren 20an etxetik kanpo arrastiko 17:00etan. Gogoratu LemoaHarrobik eta Arratia Bk maila berean jokatzen dabela.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

IBILIBIDEA

Arratiako Ondare Historikoa ezetuteko aukerea Peru Perez de Anuzitaren eskutikErredakzioa

Urtailaren 28an, goizeko 09:30ean, Gorbeaiako Parkeak antolatua, inguruko ondarea ezetuteko helburu daukan ekintzari hasikera emongo jako Areatzako plazan. Hasteko, aurkezpen bat egingo da plazan eta ibilbidearen nondik norakoak azalduko dira. Ostean, parte hartzaileak Lamin daorantza abiatuko dira, Atxondo eta Emaldi auzuneetan barrena. Ibilbideak bailaran dagoan Ondare Historikoa eta Kulturala ezetuteko aukerea eskeinitu dau, besteak beste, baserriak, baselizak, torre-ak, bai eta bizimodua be. Ibilbidea Areatzan amaituko da.

Zailtasun bajuko ibilbidea izango da, 5 orduko gitxi gorabeherako iraupena eukiko dauana. Distantzia

oso 7,5 kilometrokoa izango da. Antolatzaileak jakinarazo dabe eguraldiaren arabera ibilbidea bertan behera geratu leitekela. Ura eta hamaiketako eroatea aholkatzen dabe.



DOKUMENTALA

¿A dónde vamos? dokumentala IgorrenErredakzioa

Bizkaiko hainbat herritan egon eta gero, Marian Gerrikabeitia kazetariak zuzendutako *¿A dónde vamos?* dokumentala Igorren emongo da. Igorreko Udalak eta Igorreko jubiladuen alkarteak antolatu dabe eta urtailaren 19an, 19:00etan, ikusi ahal izango da Kultur Etxean. Sarrera dobako izango da eta ikusle guztiai dago zuzenduta.

Gerrikabeitiak erretiro adinera heltzean diran personak zelan bizi diran erakutsi gura dau. Horretarako, edadeko personen lekukotasunak bildu ditu eta protagonistak lehenengo personan,

eta traba barik, besteak beste, bizitzaz, aisialdiaz, sexuaz eta heriotzeaz egiten dabe berba.

Zahartzaroz dagozan estereotipoak alde batera itxi gura izan ditu zuzendari getxoztarrak dokumental honetan; horrezaz gainera, edadekoak gizarte oindino paper garrantzitsua daukiela eta euki gura dabela erakutsi gura izan dau.



BERTSOLARITZEA

Bertso saioa Zeanurín

Euskal Herriko txapelduna dan Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Unai Agirre izango dira Zeanuriko bertso saioan hilaren 21ean.

Erredakzioa

Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatu dau saioa Udalaren laguntzeagaz eta zitea arrastiko seiretan izango da frontoian.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletan egondako bertsolariak dira kantauko daben guztiak: Egaña, plazaz plaza denpora gehien ibili dan bertsolaria eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia lau aldiz irabazi dauana (1993, 1997, 2001 eta

2005); Lujanbio, txapela birritan jantzi dauana (2009 eta 2017); Sustrai Colina urruñarra, atzen Txapelketa Nagusian hirugarren geratu dana; finalean baten baino gehiagotan egondako Elortza eta Iturriaga durangarrak; eta azkenik, Agirre, 2017an lehenengoz finalean egon dan bertsolaria.

Urtero lez, eta saiora bertaratu diran bertsolariak zeintzuk diran jakinda, bertso saio on bat disfrutatuko aukerea izango da Zeanurín.



Maialen Lujanbio txapelduna.

BERTSOLARITZEA

Areatzako IV. Errefrau PoteoaErredakzioa

Zezeilaren 2an, arrastiko 19:15ean, ugerlekuetako tabernatik ekingo deusie Areatzako Euskera Planak antolatutako IV. Errefrau Poteoari Areatzako tabernetatik. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia bertsolariak, musikearen laguntzeagaz, esakera zahar baten parodia eginez bertso bana botako dabe. Taldeak, ze esakera dabizen parodietan asmatu behar dabe. Lehiaketaren helburua, ume, gazte zein nagusiak, kantu eta

errefrauen bidez, gau dibertigarri bat pasetea da antolatzaileen arabera. Finala Gaztetxean jokatu da.

Ekintza hau lehiaketa moduan planteetan da ondo pasatuz euskerea bultzatzeko eta sariak

ZINEKLUBA

Zinekluba zezeilaren 1ean IgorrenIllart Gumuzio

Me and Earl and the Dying Girl (Yo, el y Raquel) pelikuleagaz jarraituko dau Igorreko Zineklubak hiru hilabete honetan. 2015ean Alfonso Gómez-Rejónen gidaritzapean egindako film estabatu hau zezeilaren 1ean, 20:00etan, eskeinitu da Igorreko Lasarte Aretan.

Pelikulan Greg protagonisteak oharkabean pasau gura dau institutuko atzen urtea era guztietako hartu-emonak saihestuz. Bitartean, ezkutuan, bere pelikula kutunen bersino bildurgarriak grabatzen ditu daukan lagun bakarragaz, Earl-egaz. Ordura arteko egoera hori guztiz aldatuko da; justu, amak leuzemia daukan klasekidearen lagun egitera behartzen dauanean.

Hiruhilabete honetako zineklubeko atzen zitea martiaren 1ean izango da *The Bigamist (El bigamo)* filmaren emonaldiagaz.



Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoñe Bizkaia

www.izquierdo.com

Aireta gutxienez
-Laguntza psikodukaldua
-Logopedia
-Fisioterapia
-Psikomotritatua
-Jantzi arazoak
eta abuz gehiago

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPERA

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGOÑE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 83 - 905 85 4 018

NAIARA HORTZ KLINIKA

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igoñe
04 631 52 26

ERAKUSKETEAK

"Mendi bete diru" erakusketea

Irati Urien

Ganzabal Mendi Taldeak erakusketea antolatu dau hile honetarako. "Mendi bete diru" dauka izena eta Igorreko Kultur Etxean ikusi ahal izango da, urtailaren 20tik aurrera. Sabadellgo Servei General d' Informació de Muntanya erakundearen eta EMMOA Euskal Mendizaletasunaren Museoaren produkzioa da erakusketea, Internacional Mountain Museums Alliance-ren esparruan dagoana, eta Euskal Mendizale Federazioaren babes daukana.

90x60 cm-ko hamabi koadrutan, hirurogeta sei billete egongo dira ikusgai, aurretik eta atzetik,

132 irudi guztira. Hirurogeta sei herrialdetako bankuk jaulkitako billeteak dira, irudi lez euren tonor eta mendikateak dabezanak. Everest, Cervino, Mont Blanc, Ararat, Kilimanjaro... munduko mendietan barrena biaje bat egiteko proposamena egiten dabe irudiok.

Erakusketearen aurkezpen txostenak esaten dauan lez, "Mendiak mugari esanguratsua dira Lurraren erliebean, eta, inguruneagazko erakusten daben nagusitasunaren ondorioz, erreferentzia saihestuezinak dira, paisajeari begira jarten garenean. Mendi horreetako asko eta asko identitate-sinbolo bihurtu dira euren herrialdeetan, siluetaren berezitasunagaitik edo garaieragaitik. Alpinismoa sustatu eban erromantizismo haretatik nahiko urrin dagozan euskarrietan islatu izan dira mendiak horren guztia- ren ondorioz, bankuko billeteetan, esaterako".



KIÑU GAZTETXEA

Kaotiko Kiñun

Ekintzakaz beteta dakar urtaila amaierako asteburuak Kiñu Gaztetxeak.

Illart Gumuzio

Ekintzakaz beteta dakar urtaila amaierako asteburuak Igorreko Kiñu Gaztetxeak. Urtilaren 27an, Kaotiko, The Guilty Brigade eta Chit Chat Sex Band taldeen kontzertuak egongo dira 22:00etatik aurrera. Kontzerturako sarrerak zazpi euroan dagoz salgai Axular Herriko Tabernan, Kukuma tabernan, Gau Lora akeitegian eta Txaparro jatetxean.

Kaotiko, Aguraineko punk-rock talde ezaguna da. 1999 urtean sortu zan eta bederatzitanek

osetzen dabe euren diskografia: *Mundo kaotiko* (2001), *Raska y pierde* (2003), *En directo* (2005), *Destino escrito* (2006), *Adrenalina* (2008), *Reacciona* (2010), *X* (2012), *E.H. Calling* (2013), eta *Sindikato del crimen* (2016).

The Guilty Brigade oster, Iruñean 2012an hasitako punk-rock taldea da eta bere izenpean lan ditu: *Desbideratuen deskontrola* (2013), *Hacia el infierno* (2014), *Pólvara & Whisky* (2015) eta *No apto para cuerdxs* (2017) Chit Chat Sex Band taldea oste-

ra, Iñaki Kreator, Sampler eta Pablo Gimeno Gurpeguik osatutako Iruñeako banda elektronikoa da.

Antzerkia

Urtailaren 19an, *Eingo al deu?* komedia ludiko sexuala eskeiniko dabe Atara zarata antzerki taldeko kideak 21:00etatik aurrera. Sarre- rea dobakoa izango da.



BERBALDIA

"De Miguel" kasua berba- gai Zeanurin

Erredakzioa

Datorren urtailaren 26an, arrastiko zazpiretan, eta Zeanuriko Eguzkiola alkarteak antolatua, Ahoztar Zelaieta kazetariak Arabako "De Miguel" ustezko ustel-

keria kasuaren gaineko berbaldia emongo dau "De Miguel auzia eta askoz gehiago" izenburupean. Bertan, Egin, Ardi beltza eta Kalegorria argitalpenetarako behar egin izan dauan kazetari ikertzaile eta kriminologo ezagunak "De Miguel" auziaren atzean ei dagozan zalantzak argituko dauz. Zelaietaren eretxiz une honetan epaitegian dagoan auzi hau ez da ustalkeria kasu isolatu bat, eta Espainiako kasu ezagunen aldean, gitxi ei dakigu hemengo ustelkeriaz.

Zelaietak urteak daroaz ikerketa-kazetaritzan. Egin-en Pepe Reygaz batera hasi zanetik hamaikatzko proiektutan jardun izan dau. Batez be ustelkeriari lotutako kasuak ikertu izan ditu. Bereak dira *Jovenes Burukides Bizkainos: clientelismo y fontanería* (2013), *La Casta Vasca* (2014), *Kutxabank: El saqueo de Euskal Herria* (2015) eta *Euzkadi S.A.: el gen corrupto del PNV* (2017) liburuak.

Berbaldia Zeanuriko plazan bertan Eguzkiola alkarteak daukan lokalean izango da.

DUNBA

Zazkel, txakur zazkela

JB Eguzkitza Meabeko ikasleak

Bazen behin, Harrotxu izeneko estralurtar urdin bat. Harrotxuri asko gustatzen zitzaion umeekin egotea, baina Lemoako umeekin gutxi hitz egiten zuten euskaraz, egun batean Lemoara etortzea erabaki zuen. Bertako eskolan 500 ume inguru zeuden eta Harrotxu etorri zenetik ume guztiek euskaraz bakarrik hitz egiten zuten. Irakasleak harrituta zeuden Harrotxuk lortu zuelako haiek lortu ez zutena. Izan ere, kanpotik zetozen ume guztiek euskararik jakin gabe, hilabete bat pasa ondoren oso ondo hitz egiten zuten euskaraz.

Baina neguko egun euritsu eta hotz batean Zazkel deituriko txakur maltzur bat etorri zen Lemoara. Lehen, Zazkel euskara planetan bizi zen eta Harrotxuren txakurra zen. Zazkel etxean oso txarto porta-

tzen zenez, eta erderaz hitz egiten zuenez, Harrotxuk etetik botatzea erabaki zuen eta kalean ere erderaz hitz egiten zuenez, planeta hartako estralurtarrek bertatik bota zuten. Zazkel haserrearen haserreaz, Euskal Herria erdalduntzen saiatu zen. Bere plana Lemoan gozoki-fabrika bat egitea zen. Fabrika hori martxan jartzeko, umeekin erderaz egin behar zuten. Hala ere, Lemoako ume guztientzako gozokiak egiteko fabrika handia behar zuen, beraz, lehenago beste herri batzuk erdaldundu zituen bere fabrika handitzeko asmoz.

Zazkel umeekin tratuak egiten hasi zen. Tratua, erdera egiteagatik gozokiak ematea zen, gaztelera hitz egitea baitzen bere gozoki fabrikako energia nagusia.

Denbora pasatu zen, ume guztiak gaztelera aritzen ziren eta Harrotxuk ez zuen egoera ulertzen. Harrotxuk

galdetzen zien:

- Zer, ez duzue euskeraz hitz egin- go ala?

- Mmmm... bai, bai...

Harrotxuk zerbait susmatzen zuen, beraz, ume euskaldun peto-petoengana jo zuen: Laiene eta Lur, nebarreba bikiengana, hain zuzen ere.

Ume biek hasieran ez zioten ezer onartu, baina azkenean gertatzen ari zena kontatu zioten. Harrotxu guztiz harrituta geratu eta Zazkelen bila abiatu zen.

Fabrikara heldu zen eta Zazkeli esan zion:

- Harrapatu zaitut!

Zazkelek erderaz esan zion Harrotxuren alde zeudenak orain bere alde zeudela. Harrotxuk, egia zela jakin arren, esan zion:

- A bai? Non daude?! Ez ditut ikusten!

- ¡Aquí están!

Eta bat-batean Lemoako ume gehienak ate batetik irten ziren, Zazkelen atzean jarriz. Harrotxu benetan kezkatuta zegoen, eta Lurrek eta Laienek aurpegian sumatu zioten. Ikusi zuten Harrotxu gaitortzen ari zela, eta Laienek egoera estuan zegoela ikusi-

ta, hitza hartzea erabaki zuen:

- Benetan utziko diozue txakur nazkagarri honi, gozoki ziztrin batzuen truke, bere plana aurrera eramaten? BENETAN? -oihukatu zuen ozen, mundu guztiak entzun zezan. Azken urte honetan, Harrotxu beti egon da gurekin, guri euskaraz egiteko esaten, baina ez bakarrik bera ez gaixotzeko, baita Euskal Herrian hizkuntza zahar honek bizirik iraun dezan ere. Euskara maite duelako, eta euskara maitatua izatea nahi duelako -malkoak irten zitzaizkion Laieneri.

Umeak Harrotxuren inguruan jartzen hasi ziren, hasieran gutxi batzuk, baina bukaeran guztiak. Zazkel haserre jarri zen:

- ¿Qué hacéis?

- Zertan gabiltzan? -hartu zuen hitza Lurrek- gure hizkuntza zaintzen eta maitatzen ari gara, eta etxe batzuetako hizkuntza izan ez arren, haien herriko hizkuntza errespetatzen eta zaintzen ari dira. Beraz, nahikoa egin duzu beste herri batzuk guztiz erdaldunduz, heldu zaizu barkamena eskatzeko uea.

Isiltasuna nabarmendu zen den-



bora batez, eta horren ondoren Zazkelek zera erantzun zuen:

- Arrazoia daukazu, euskara maitatu behar da, eta Harrotxuk jarritako zigor txiki horregatik ez nintzen horrela jarri behar izan, barkatu.

Harrotxu belauniko egotetik altxatu eta beregana joan zen eta besarkada batez eman zion barkamena. Ondoren ume guztiek besarkatu zituzten biak.

Aurrerantzean, Zazkel Lemoara etorri zen bizitzera Harrotxurekin, ume guztiek euskaraz hitz egiten zuten, eta gozoki fabrika euskarekin funtzionatzen hasi zen. Gozoki horiek Euskal Herri osoan saltzen hasi ziren. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Lemoako plazan.

AGENDEA

URTAILAK 17 ARRATIA

Andren Jabekuntza Eskolako "Soinudun biajea" tailerrean izena emoteko epea zabalik. Zezeilaren 9 eta 10ean izango da Igorreko Kultur Etxean. Izena zezeilaren 2ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean 94 631 17 17 telefonoan eta www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna webgunean. Arratiako edozein udaletan be emon daiteke izena.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, urtailaren 22ra arte, martiaren 3an sagardotegira egingo dan urtekerara joateko izen-emotea. Gazteria Zerbitzuko bulegoan edo 688 898 765 telefonoan. 18tik 30era urte artekoentzat.

Urtailaren 31ra arte Zu bai Zu 2 Talentu Lehiaketan izena emon daiteke zubaizu@igorre.net emaillean, 676 247 784 telefonoan edo Kultur Etxean.

10:00etatik 20:45era, 6. mailako ikasleen artelanen erakusketea. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 19ra arte.

ZEANURI

Gimnasia hipopresiboa ikastarorako matrikula epea zabalik zezeiletik maiatzera bitarteko ikastarorako. Ikastaroa 18:00etatik 19:00etara izango da gimnasioan astelehenero. Parte hartzeako mazalaandratalde@gmail.com helbidean emon izena.

URTAILAK 18

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, "Zaindu zainduz" tailerra Kontxi López Soriaren eskutik. Mazala andra taldeak antolatuta. Kultur etxean. Parte hartzeako, mazalaandratalde@gmail.com helbidean emon behar da izena.

URTAILAK 19

ARRATIA

Zeanuritik 08:45ean urtetan dauan autobusa hartuta mendi ibilaldia. Bedia-Galdakao-Bedia. Izena 94 673 62 62 telefonoan emon edo WhatsApp mezua bialdu 627 408 827 telefonora.

AREATZA

16:30ean, Gorbeiko Parkeak antolatuta talo tailerra: artoaren urunagaz eskuz taloak egiteko eta probetako aukerea egongo da. Lehen hezkuntzako gazteak zuzenduta. Izena 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean emon.

IGORRE

19:00etan, *¿A dónde vamos?* dokumentala. Lasarte Aretoan. Igorreko Udalak eta Jubiladuen alkarreak antolatuta.

21:00etan, Atara zarata taldearen *Eingo al deu?* antzezlanaren Kiñu Gaztearen.

LEMOA

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldearen Asanblada Orokorra. Jubiladuen etxeko gaineko aretoan.

URTAILAK 20

IGORRE

19:30ean, Alex Txikonon *Everest* filma. Lasarte

Aretoan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

"Mendi bete diru" erakusketea Kultur Etxean. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

LEMOA

19:00etan, Lemoako Andra Mari Eleizan. Juanjo Elezkanoaren disko barriaren aurkezpen kontzertua. Lemoako parrokiak antolatuta.

URTAILAK 21

IGORRE

17:00etan, zinea *Paddington 2*; 19:30ean, *Suburbicon*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, urtekerea bizikletan Arlonagusia kaleko saskibaloi kanpatik. Lemoa Txirindulari Elkarreak antolatuta.

Urtekerea Landarraitz (829 m.)-Arrola (904 m.)-Gorostiaga (951 m.). Ganzabalek antolatuta.

ZEANURI

12:30ean, Joko-Alairen Batzar Orokorra Kultur



Barry Barrezen Txintxo ibili! umorezko bakarrizketea Lemoan

Barry Manley Irlandako irakasle, idazle eta musikariaren bakarrizketa saioa urtailaren 26an, arrastiko 19:30ean, izango da. Barry Barrez izenpean, Manley-k *Txintxo ibili!* umorezko saioa eskeiniko dau Lemoako Elizondoko Kulturgunean. Txintxo Ibili euskeraz eginda dago eta heldua dan publikoarentzat zuzenduta dago. Eskusoinu bereziaz be lagunduta egongo da 60 minutu irauten dauan lan hau.

Euskal Herrian urte batzuk pasau eta gero Barry Barrez-ek bizitzaren inguruko hausnarketea egingo dau, integrazino prozesua azalduz. Gainera, euskera ikasteko jarraitu dauan bide bitxia eta gure herrialdeko bazter askotan izandako abenturen gainean be egingo dau berba.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MOTORRA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajejan aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

DANERIK

LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

LAN ESKEINTZA

Estetizista bat behar da Igorreko estetika zentro baten, lanaldi erdirako. Gixienez urte biko esperientzia eskatzen da.

Interesdunak bialdu curriculuma eta argazkia haizenatur@gmail.com helbidera.

ALOKAIRUA

Usansolon fisioterapia zentroa alokatzen da. Behar dan guztiagaz horniduta, funtzionamentuan eta prezio interesgarrian. Telefonoa 690 107 156.

ETXEA ALOKAIURUAN

Pisua alokairuan Igorren, 2. solairua. Argitsua eta epela. Beheko Plazatik hur. Interesdunak deitu 644 955 345 telefonora.


Zeozzer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Suburbicon* filmarako.

Abel Ortuzar (Areatza)
Guillermo Marañon (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *En realidad nunca estuviste aquí* filmarako.


Joana Etxebarria (Igorre)
Mari Angeles Larraondo (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Oxigenoa. Eskuzarta. 2.- Helioa. Areak. 3.- Modua, erea. Barazki bat.
- 4.- Konsonantea. Gogotsu.
- 5.- Garesti. Letra bat. 6.- Banatu.
- 7.- Estaduko Nortasun Agiria. Agurtzeko onomatopeia. 8.- Pala. Andrai dei egiteko hotsa.
- 9.- Azeituna. Bat erromatar.

GOITIK BEHERA

- 1.- Aholku. Sorbaldia. 2.- Erbioa. Ubide. 3.- Letra bat. Luki. 4.- Idiak geldiarazoteko interjekzioa. Zeregin. Oinarrizko lau odol taldeetako bat.
- 5.- Sakonune. Bokala. 6.- Labur ez dana. Birritan, durundiaren onomatopeia. 7.- Euskera zaharrean, bakurra. Txartel.



Topau gorantza begiratu ezkerreko ikusi leitekezan zazpi gauza.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | A | K | O | R | R | A | L | E | A |
| I | E | I | L | U | M | U | R | A | K |
| K | G | R | U | A | E | K | U | M | E |
| U | U | A | S | T | I | A | B | O | Z |
| G | Z | N | E | M | E | N | H | R | T |
| A | K | I | T | E | B | U | O | S | A |
| M | I | K | E | T | X | A | R | A | L |
| E | A | Z | K | O | N | E | R | A | K |
| R | U | A | E | U | R | I | A | I | U |
| A | Z | G | E | L | A | B | I | R | O |
| M | U | E | Z | K | A | U | T | O | Z |
| I | Z | H | A | I | J | O | T | X | A |
| D | O | A | L | A | P | E | R | T | O |
| S | T | U | A | O | B | O | L | G | P |
| H | E | M | I | K | O | L | A | R | E |



AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ

Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...

ZUZENBIDE

ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.

AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA

Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3 - 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

Orre

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Pinturas Aratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
Kameta euskaraz zein erdaraz

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
telefonoa 94 631 36 31 • faxa 94 673 70 83
e-posta: unozula@euskalnet.net



Areatzako Bainuetxea



www.hotelbalnearioareatza.com

Oparia topetan Olentzero egunerako?

Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705